



**Kale Neurketa**<  
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

# LEGAZPI

## HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE-NEURKETA (2016)

2017ko urtarrila



## Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
2. METODOLOGIA.....	4
2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia.....	4
2.2 ‘LEGAZPI, 2016’ neurketaren fitxa teknikoa.....	8
3. EMAITZA OROKORRAK.....	12
3.1 Erabilera Legazpi, 2016.....	12
3.2 Erabileraren bilakaera Legazpin, 2001-2016.....	13
3.3 Zonaldekako emaitzak.....	14
3.3 Hiztunen ezaugarrien araberako datuak .....	15
3.3.1 Sexuaren araberako emaitzak.....	15
3.3.2 Sexuaren araberako erabileraren bilakaera .....	16
3.3.3 Adinaren araberako emaitzak.....	17
3.3.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera .....	18
3.4 Haurren presentziaren araberako emaitzak.....	19
3.4.1 Haurren presentziaren araberako emaitzen bilakaera.....	20



## 1. SARRERA

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen dugu gure iritzia ematera. Ezagutzarik ez izateak dakar modu subjektiboaren erabilera hori eta horregatik, gero eta garrantzitsuagoa zaigu egoera horren berri emango diguten datuak eskuartean izatea balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsia digu erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Ez da jarduera arautua eta patroiz jakinei obeditzen diena. Horrenbestez, erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko eta beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen dugu herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzerako garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiak matrikulazio datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen plan bat egiterakoan eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakin behar izatera eramaten gaitu lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kale neurketen emaitzak beharrezko bihurtzen dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera datu eskura ditzakegu neurketaren bidez, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa hauek maiztasun batekin eginez gero, bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzea ahalbidetuko liguke.

2016an egindako hizkuntza-erabileraren kale neurketa hau Legazpin egin den laugarrena da, aurrez 2001ean, 2006an eta 2011an egin dira neurketak. Eskuartean dugun txosten honetan 2016ko neurketaren emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu, eta bilakaerak aztertzerakoan neurketa guztiak hartuko ditugu kontuan.



## 2. METODOLOGIA

Legazpin egindako kale neurketaren metodologia Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Neurketan garaturikoan oinarritua dago. Hurrengo atal batean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herriko berezitasunetara egokitzeko. Kale Neurketaren metodologia “*Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa*” (Altuna, O; Basurto, A. 2013) argitalpenean jaso da (<http://www.soziolinguistika.eus/Gida>). Euskaraz ez ezik ingelesez ere kaleratu da metodologiaren gida, liburuaren sarreran aipatzen den bezala euskararen egoera diagnostikatzeko hain baliagarria zaigun tresna ezagutarazi nahi zaiolako mundu zabalari, eta bereziki hizkuntza gutxiagotua duten komunitateei zein hizkuntza-aniztasuneko egoerak aztertzeko, ahozko erabilera kuantifikatu nahi duten ikerlariei.

### 2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik zazpi alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Orotara 350.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan. Dagoeneko hogeita hamar bat urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu eta erreparorik gabe esan dezakegu, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek.

Kale neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

#### Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak estatistikoki neurtuak izateko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.



## Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, egia da bakarriketa gisa ere jasotzen ditugula elkarrizketa mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua daukagu, non hiztun bakarra jasoz biltzen den elkarrizketa telefonoz beste aldera dagoena ez dugulako ikusten. Bestalde, egia da normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten dela. Beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen dugu, gehien erabiltzen duena alegia.

## Fitxak

Neurketetan erabilera datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen dugu. Material honen bidez, hiztunen ezaugarriak jasotzeko aukera ematen digu aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabilera duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera. Ikus ondoren fitxa horien irudiak:

**HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA**  
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA  
T: 943 592 556  
kaleneurketak@soziolinguistika.eus

HERRIA: \_\_\_\_\_  
IBILBIDEA: \_\_\_\_\_  
EGUNA: \_\_\_\_\_ ORDUA: \_\_\_\_\_  
NEURTZAILEAK: \_\_\_\_\_

OHARRAK: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

	EUSKARA	GAZTELEERA	FRANZESERA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01										
02										
03										
04										
05										
06										
07										
08										
09										
10										
11										
12										
13										
14										
15										
16										
17										
18										
19										
20										

Emakumezkoa    Gizonetzkoa

	EUSKARA	GAZTELEERA	FRANZESERA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21										
22										
23										
24										
25										
26										
27										
28										
29										
30										
31										
32										
33										
34										
35										
36										
37										
38										
39										
40										
41										
42										

Emakumezkoa    Gizonetzkoa



## “Legazpiarren” erabilera baino Legazpiko kaleetako

---

Metodologia honek badu muga bat: ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen erabilera dela esatea, neurtutakoa herriko kaleetan jaso dugun erabilera dela baizik. Dena den, kasu batzuetan herrikoen erabilerara hurbiltzen nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarrizketak aparte jasotzen ditugu.

Erabilera datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar dugu, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar dugu datu adierazgarriak jasotzen baditugu ere, euskararen kale erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Honen arrazoa ulergarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

## Adierazgarritasuna

---

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko, garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale erabileran duten eragina aztertzeko gutxieneko elkarrizketa kopuru bat bete behar izaten da adierazgarritasun hori lortzeko. Egia da sarritan gazteen adin-taldean, 15-24 urte bitartekoen artean alegia, kalean behar baino hiztun gutxiago behatzen ditugula; izan ere, adin-talde honen joera erdigunetik haragoko eremuetan biltzea da eta zailtasunak ditugu gure laginean hiztun profil hau txertatzen.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute beharrezko elkarrizketak ez badira jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeko, lagin garrantzitsu bat behar izaten da aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, adibideari erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina eskuratzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren araberako azterketa egiteko ez.



## Oharrak

Eta atal honi amaiera emateko, ikus ondoren datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-  
orriak:

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Zer neurtu behar da?**  
Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itzak bezat (tabernak, dendak, kiroldegia, etxak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

**Neurtzaileak**  
Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina egozkiago da neurtzaileak binaka antzea. Izan ere,  
• Errazago da. Batek jendeari entzun eta besteari zer aipatatu behar duen esan diezaiola.  
• Biren artean askoz hobeto disimulatu da, eta oso inportantea da salatez inor ez dadin konturatu neurketa egingen ari garela. Gainerakoa, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserrefuz,...

**Neurketa, ez inkesta**  
Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egingen duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzaten. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitate bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboen. Kalean doazenean ez dute jakin behar neurketa egingen ari garenik.

**ibilibidea**  
Bikote bakoitzak **ibilibide jakin bat** izango du (koderearen atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). Ibilbidea herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erokketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hazi eta bakatu leku berean egingen beharko du, bikoteak behar bezainbat aldir egin ahal izateko ibilbide hori, neuraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.  
Bikote bakoitzak bere ibilbidean pasatzen ibiliko da. Ez dago arazorik inolbehinka eserlekuren batean eserita neurketa eginge, eta batzuetan gainera, disimulatzeko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide gutxiar zehar egingea da.

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Datuak nola jaso**  
Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza:** "Euskara," "gaztelera," "frantsesa" eta "besteik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besteik" zutabean adieraziko dugu. Eta gaurra bera egingo dugu, ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
- Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)," "gazteak (15-24 urte)," "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urterik gorakoak)"; Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrezkoa da.
- Generoa:** Mintzakeen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
- Azkenik, haurrek hitz egingen dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzuntz aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egingen den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egingen (**01 elkarrizketa**):  
1. Euskaraz laukian "X" markatu.  
2. Haurren zutabean, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.  
3. "Haurrak hitz egingen" zutabean "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelera hitz egingen ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea berarekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):  
1. Gaztelera laukian "X" markatu.  
2. Haurren zutabean, emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabean gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabean emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.  
3. Haurrak hitz egingen zutabean "ez" laukian "X" seinatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelera ari dira (**03 elkarrizketa**):  
1. Gaztelera laukian "X" markatu.  
2. Gazteen zutabean emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.  
3. Haurrak hitz egingen zutabean "ez" laukian "X" markatu.

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Oharrak:**

- Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrizketan doazenean **normalean bat entzungo** dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horietan **guk fitxa-orrian lau lagun entzun ditugula jarriko dugu**.
- Neurketa irauten duen denboran **ahalik eta elkarrizketa** gehien entzungo ditugu, eta ahalik eta fitxa-orri gehien beteko ditugu.
- **Neurraldi hastean** fitxa-orri berrituko dugu, eta fitxaren goialdean agertzen diren datuak beteko ditugu neurraldi dagokion ibilbidea, eguna eta ordua adieraziz.
- Ibilbidean zehar pertsona bera **neurraldi eta elkarrizketa berean** ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berearekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakeak aldatu ez arren), hori gertatzen ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- **Elkarrizketa elebidunetan** (batek euskaraz hitz egin eta besteak gaztelera entzuten dutenean, edo alderantziz) bi aldir jasoko dugu elkarrizketa, bata euskaraz eta beste gaztelera. Ondoren bi elkarrizketak lotuko ditugu gezi batez: ikus aurreko fitxa erudian 04 eta 05 elkarrizketak (Adibidea: bi agure hitz egingen ari dira, bata euskaraz ari da eta besteak gaztelera entzuten dio).
- **Neurtzaileekin** hitz egingen dutenean ez zale neurtuko.
- **Dudazko kasuak ez jaso**, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.
- **Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer**: ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzaten... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egingen ari; gurea behaketa dibulgazio neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.
- Fitxa-orriaren atzealdean **oharrak** idazteko tartea dago, neurketan zehar gerta daitezkeen ezustekoak, neurtzaileen zalantza edota bestelako informazio interesgarria jasotzeko.
- **Azken oharra:** Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, **beti egia jarri**, ikurketa hau euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua da eta errealitatea egiazki nolako den jakitea interesatzen zaitugu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan.



## 2.2 'LEGAZPI, 2016' neurketaren fitxa tekniko

### Prozedurak

---

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

### Ibilbideak

---

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potenzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2016ko *Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko ondorengo kale eta gunek aztertu dira:

- 1. Goialdea:** Laubide auzoko oinezkoen kalea: taberna, denda, botika, supermerkatua, kutxazain automatikoa... ingurua.
- 2. Behe-aldea 1:** Latxartegi parkea – Patrizio Etxeberria kalea (kultur etxearen eta Gizarte zentroaren ingurunean barne) – Kale Nagusia.
- 3. Behe aldea 2:** Azoka gunea, udaletxearen atzealdea, udaletxearen albo batean (Elizaren atzealdean) dagoen haur txikientzako parkea, Aizkorri kalea (futbol zelaira).

### Landa-lana

---

Landa-lanari dagokionez, datu bilketa 2016ko irailaren 21 eta urriak 22 bitartean egin dugu, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldietan eta ordutegietan:






Ibilbidea	Neuraldia
Legazpi (Behe aldea 1)	Urriak 15, larunbata, 11:00-13:00
	Urriak 15, larunbata, 18:00-20:00
	Urriak 19, asteazkena, 17:00-19:00
	Urriak 22, larunbata, 11:00-13:00
	Urriak 22, larunbata, 18:00-20:00
	Urriak 5, asteazkena, 17:00-19:00
Legazpi (Behe aldea 2)	Irailak 21, asteazkena, 17:00-19:00
	Irailak 24, larunbata, 11:00-13:00
	Irailak 24, larunbata, 18:00-20:00
	Irailak 28, asteazkena, 17:00-19:00
	Urriak 1, larunbata, 11:00-13:00
	Urriak 1, larunbata, 18:00-20:00
Legazpi (Goi aldea)	Irailak 21, asteazkena, 17:00-19:00
	Irailak 24, larunbata, 11:00-13:00
	Irailak 24, larunbata, 18:00-20:00
	Irailak 28, asteazkena, 17:00-19:00
	Urriak 1, larunbata, 11:00-13:00
	Urriak 1, larunbata, 18:00-20:00
<b>NEURKETAN IGAROTAKO ORDUAK: 36 orduko neurketa</b>	

## Mapak

Ikus ondoren ibilbidearen nondik norakoak errazteko erabilitako mapak:


>Ibilbidea:  
**LEGAZPI (Behe aldea 1)**

**Kale Neurketa**  
SOZIOLINGUISTIKAR KLUSTERRA






>Ibilbidea:  
**LEGAZPI (Behe aldea 2)**



>Ibilbidea:  
**LEGAZPI (Goi aldea)**





## Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

---

**UNIBERTSOA:** Legazpiko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

**LAGINA:** behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 1.928 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 5.823 herritarrek osatu dute lagina.


**AKATS-TARTEAREN KALKULUA** (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):  $\pm 2,23$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan.



### 3. EMAITZA OROKORRAK

#### 3.1 Erabilera Legazpi, 2016

A. Grafikoa. Hizkuntzen kale-erabilera. LEGAZPI, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabilerearen kale neurketa, 2016.

1. Taula. Hizkuntzen kale-erabilera. LEGAZPI, 2016 (%)

	Kop.	(%)
<b>Euskaraz</b>	<b>1.913</b>	<b>32,9</b>
<b>Gaztelaniaz</b>	<b>3.808</b>	<b>65,4</b>
<b>Beste hizkuntzetan</b>	<b>102</b>	<b>1,8</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.823</b>	<b>100</b>


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabilerearen kale neurketa, 2016.



### 3.2 Erabileraren bilakaera Legazpin, 2001-2016

2016an egindako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa hau Legazpin egin den laugarrena da. Aurretik 2001n, 2006an eta 2011an egin ziren neurketak. Atal honetan azken hamabost urteetan izandako bilakaera jaso dugu.<sup>1</sup>

B. Grafikoa. Kale-erabileraren bilakaera. LEGAZPI, 2001-2016



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

2. Taula. kale-erabileraren bilakaera. LEGAZPI, 2001-2016

URTEA	Erab. (%)	Oinarria (behatutako solaskideak)
2001	21,5	2.751
2006	28,3	2.296
2011	27,1	6.940
2016	32,9	5.823


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

<sup>1</sup> Kontuan izan diseinuan aldaketak egin direla 2011ko eta 2016ko ibilbideen osaera konparatuz.



### 3.3 Zonaldekako emaitzak

C. Grafikoa. Kale-erabileraren emaitzak, zonaldeen arabera. LEGAZPI, 2016



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

3. Taula. Kale-erabileraren emaitzak, zonaldeen arabera. LEGAZPI, 2016


	GUZTIAK	Behe aldea 1	Behe aldea 2	Goi aldea
<b>Euskaraz</b>	<b>32,9</b>	<b>34,0</b>	<b>43,2</b>	<b>9,9</b>
<b>Gaztelaniaz</b>	<b>65,4</b>	<b>62,8</b>	<b>56,2</b>	<b>87,9</b>
<b>Beste hizkuntzetan</b>	<b>1,8</b>	<b>3,2</b>	<b>0,6</b>	<b>2,2</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Oinarria (behatutako solaskideak)</b>	<b>5.823</b>	<b>1.773</b>	<b>2.735</b>	<b>1.315</b>

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.



### 3.3 Hiztunen ezaugarrien araberako datuak

#### 3.3.1 Sexuaren araberako emaitzak



*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.*

**4.Taula. Sexuen araberako kale-erabilera. LEGAZPI, 2016 (%)**


	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
<b>Euskaraz</b>	<b>32,9</b>	<b>33,8</b>	<b>31,8</b>
<b>Gaztelaniaz</b>	<b>65,4</b>	<b>64,3</b>	<b>66,5</b>
<b>Beste hizkuntzetan</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>	<b>1,7</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Oinarria (behatutako solaskideak)</b>	<b>5.823</b>	<b>2.985</b>	<b>2.838</b>

*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.*



### 3.3.2 Sexuaren araberako erabileraren bilakaera

E. Grafikoa. Sexuen araberako kale-erabilera. LEGAZPI, 2001-2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

5.Taula. Sexuen araberako kale-erabilera. LEGAZPI, 2001 - 2016 (%)

URTEA	Guztiak	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2001	21,5	24,8	19,3
2006	28,3	28,5	28,0
2011	27,1	28,8	25,2
2016	32,9	33,8	31,8


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.





### 3.3.3 Adinaren araberako emaitzak

F. Grafikoa. Adinaren araberako kale-erabilera. LEGAZPI, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraen kale neurketa, 2016.

6. Taula. Adinaren araberako kale-erabilera. LEGAZPI, 2016 (%)


	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	32,9	49,1	34,0	29,1	14,6
Gaztelaniaz	65,4	48,7	61,8	68,9	85,3
Beste hizkuntzetan	1,8	2,2	4,1	2,0	0,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Oinarria (behatutako solaskideak)	5.823	1.903	241	2.475	1.204

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraen kale neurketa, 2016.



### 3.3.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera

G. Grafikoa. Adinaren araberako kale-erabilera. LEGAZPI, 2001 - 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

7. Taula. Adinaren araberako kale-erabilera. LEGAZPI, 2001 - 2016 (%)

URTEA	Guztiak	Haurrak	Gazteak <sup>2</sup>	Helduak	Adinekoak
2001	21,5	34,2	19,9	14,0	18,1
2006	28,3	39,2	28,7	22,0	21,2
2011	27,1	40,3	18,3	22,4	17,6
2016	32,9	49,1	34,0	29,1	14,6


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

<sup>2</sup> Ohar metodologikoetan azaldu dugun moduan, garrantzitsua da kontuan izatea gazte gutxi izan direla behatuak.



### 3.4 Haurren presentziaren araberako emaitzak

H. Grafikoa. Haurren presentziaren araberako Kale-erabilera. LEGAZPI, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.


8. Taula. Haurren presentziaren araberako Kale-erabilera. LEGAZPI, 2016 (%)

	GUZTIAK %	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Haurrak eta nagusiak nahasian	
					Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Euskaraz	32,9	45,9	16,5	48,7	16,6	53,2
Gaztelaniaz	65,4	52,7	82,2	48,9	81,1	44,3
Beste hizkuntzetan	1,8	1,4	1,4	2,4	2,3	2,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Oinarria (behatutako solaskideak)	5.823	936	2.785	2.102	259	1.843

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

### 3.4.1 Haurren presentziaren araberako emaitzen bilakaera

I. Grafikoa. Haurren presentziaren araberako Kale-erabilera. LEGAZPI, 2006 - 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

9. Taula. Haurren presentziaren araberako Kale-erabilera. LEGAZPI, 2006 - 2016 (%)

URTEA	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Haurrak eta nagusiak nahasian	
				Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
2006	27,8	14,1	37,8	37,8	51,3
2011	42,6	14,9	27,9	27,9	44,1
2016	45,9	16,5	16,6	16,6	53,2

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Legazpiko hizkuntza-erabileraren kale neurketa, 2016.

Andoain, 2017ko urtarrila.